



## II. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Lekeitioko Udala

**Lehiaketa-oposizio bidez Gizarte Langilearen lanpostua (02201 Administra-  
zio Bereziko eskalan karrerako funtzionarioa) betetzeko hautaketa prozesua.**

2021eko martxoaren 11ko Dekretu bidez hauxe erabaki da:

1. Gizarte langile lanpostua (02201 Administrazio Bereziko eskalan karrerako funtzionarioa) betetzeko hautaketa prozesua arautuko duen oinarriak onartu eta deialdia egin.
2. Hautaketa prozesuaren oinarriak eta deialdiari buruzko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea; era berean, oinarrien laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.
3. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikuluen arabera, ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, edo zuzenean aurka egin ahalko zaio administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasita.

Lekeition, 2021eko martxoaren 11n.—Alkatea, Koldo Goitia Markuerkiaga



LEHIAKETA-OPOSIZIOA  
**LEKEITIOKO UDALEKO HAUTAKETA PROZESURAKO  
DEIALDIA, ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN  
KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA SARTZEKO**

GIZARTE LANA  
**OINARRI ESPEZIFIKOAK**

**Lehenengoa. — Deialdiaren xedea**

Hautaketa prozesu deialdi honen xedea da, oposizio-lehiaketaren bidez, Lekeitioko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen barruan, gizarte-langile izateko lanpostu bat (1) betetzea (A2 titulazio-azpitaldea), derrigorrezko 3. Hizkuntz-eska-kizuna duena.

Berariaz adierazten da epaimahaiak ezin izango duela deitutako plaza baino izangai gehiago hautatu.

Halaber, lanposturik lortzen ez duten hautagaiak Lekeitioko Udaleko Gizarte Langileen Lan Poltsan sartuko dira. Lan-poltsa hau Lekeitioko Udaleko gizarte-langileen aldi baterako ordezkapenak betetzeko erabiliko da eta beste administrazio batzuei laga ahal izango zaie.

**Bigarrena. — Hautagaien baldintzak**

Hautaketa prozesuetan parte hartzeko beharrezkoa da:

- Unibertsitateko gradu-titulua edo Gizarte Laneko diplomatura izatea.
- Euskarazko 3. hizkuntza-eskakizunari dagokion titulua edo baliokidea izatea.
- Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikagarri zaion estaturen bateko nazionalitatea izatea. Europar Batasuneko estatuetak nazionalen ezkontideak ere parte hartu ahal izango du, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badago, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearen ondo-rengoek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat (21) urtetik beherako ondo-rengoak badira edo adin horretatik gorakoak badira eta beren kontura bizi badira.
- 18 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiro-adina ez izatea.
- Eginkizunak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasun edo ezgaitasun fisiko edo psikikorik ez izatea.
- Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo Tokiko Administrazioiko diziplina-espediente bidez bereizita ez egotea.
- Sexu-delitugileen Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatiboa izatea, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Baldintza horiek guztiak eskabideak aurkezteko epea bukatzen den unean bete beharko dira, eta, jakina, izendatzerakoan.

**Hirugarrena. — Eskabideak aurkeztea**

Izangaiak hogeita (20) egun balioduneko epea izanen dute, oinarrien laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita, hautapen prozesuan parte hartzeko behar diren agiriak aurkezteko. Eskabideak aurkezteko azken eguna Lekeitioko Udalarentzat baliogabea bada, entregatzeko epea Lekeitioko Udalarentzat baliodun den hurrengo egunera aldatuko da.

Epe horretan, Lekeitioko Udaleko alkateari zuzenduta, Gamarra kaleko 1ean (Lekeitioko) dagoen Udalaren Erregistroan, 9:00etatik 14:00etara, eskari-orria eredu ofizialean eta ondorengo agiri hauek aurkeztuko dira:

- NANaren fotokopia.
- Zinpeko aitorpena, egiaztatzen duena ez dela diziplinazko espediente bidez banandu ezin administrazio publikotako zerbitzutik, eta ez dagoela Herri Ad-



mi-nistrazioaren zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/84 Legean eta Estatuko Administrazioaren zerbitzuko langileei aplikatu beharreko bateraezintasunei buruzko apirilaren 30eko 598/85 Errege Dekretuan aurreikusitako ezgaitasun- edo bateraezintasun-kausaren batean.

3. Deialdian eskatzen diren baldintza orokor eta berariazkoak (titulazioa...) frogatzen dituzten agiriak.
4. Izangaiek, halaber, alegatutako merezimenduak zerrendatzen dituen aitordua aurkeztuko dute. Ezin izango dira baloratu alegatu eta horretarako ezartzen den epean frogatutakoez bestelako merezimenduak.  
Eskari-orria aurkeztean ez dira meritu guztiak agiri bidez egiaztatuko; oposizioaldiko baztertze ariketak amaitzen direnean, orduan eskatuko da egiaztatzea.
5. Sexu-delitugileen Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatiboa.

Era berean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira.

#### **Laugarrena. — Izangaien onarpena**

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Lekeitioko Udaleko alkateak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsi eta Lekeitioko Udalaren iragarki oholean eta web orrian argitaratuko du. Halaber, baztertuek hamar egun naturaleko epea izanen dute, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik, behar diren akatsak zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Ebazpen horretan, gainera, euskara probatik salbuetsitako izangaien behin-behineko zerrenda jasoko da, aurretik egiaztatu dutelako.

Behin-behineko zerrendak automa-tikoki behin betikotzat joko dira, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Halakorik bada, beste ebazpen baten bidez onartu edo baztertuko dira. Ebazpen horren bidez, jendaurrean jarriko diren behin betiko zerrendak onetsiko dira, adierazitako moduan. Ebazpen horren aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango da. Probak egiten diren egunerako aurkeztutako errekurtsioa ebatzi ez bada, ukitutako izangaiek kautelaz egin ahal izango dute azterketa, baina horrek ez du baliorik izango errekurtsioari erantzuna ezezkoa bada.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrendarekin oposizioko lehen ariketa egiteko eguna, ordua eta tokia argitaratuko dira.

#### **Bosgarrena. — Epaimahaia**

Epaimahai kalifikatzaileen osaera osoa Lekeitioko Udalaren iragarki oholean argitaratuko da, behin betiko zerrendarekin eta oposizioko lehen ariketa egiteari buruzkoarekin batera.

Nolanahi ere, epaimahaiak, egin beharreko lanean laguntzeko, hautapen prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako aholkulariak hartzea erabaki ahal izango du. Aholkularien eginbeharrak bakoitzaren espezialitate teknikoetara mugatuko dira.

Epaimahaikideek ezin izango dute parte hartu, eta Lekeitioko Udaleko alkateari jakinarazi beharko diote, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarretako bat gertatzen denean; eta izangaiek, aurreko artikuluan aipatutako Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, ezetsi ahal izango dituzte.

Epaimahaiko kide guztiek hizpidea eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik, azken horrek ez baitu botorik izango. Epaimahaiaren erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketa gertatuz gero, mahaiburuaren botoak erabakiko du.

Epaimahaia, titularrekin batera izen-datu behar diren ordezkari pertsonekin osatuko da.

Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, kideen erdiak baino gehiago, titullarrak zein ordezkariak, bertaratu gabe.



Epaimahaiak ahalmena izanen du sortzen diren zalantzak argitzeko eta deialdi hau behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez den orotan.

Nolanahi ere, euskararen ezagutza-probari dagokion epaimahaiko kideak horretarako propio izendatuko da, espresuki besterik xedatzen ez bada.

**Seigarrena. — Hautaketa prozesuaren hasiera eta garapena**

Oposizioko ariketak hasteko tokia eta eguna iragarki oholean eta Lekeitioko Udalaren web orrian argitaratuko dira.

Izangaiei ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie. Agertzen ez direnak baztertuko dira, epaimahaiak behar bezala justifikatu eta aintzat hartzen dituen kasuak salbu.

Prozeduraren edozein unetan izangairen batek deialdian eskatutako baldintzak betetzen ez dituela jakiten badu epaimahaiak, deialditik baztertuko da, interesdunari entzun ondoren, eta egun berean Alkatezari jakinaraziko zaio.

**Zazpigarrena. — Hautaketa prozesua**

Izangaiek eranskinean ezarritako sistemaren bidez hautatuko dira.

Oposizioko ariketa bakoitzaren kalifikazioak eta, hala badagokio, lehiaketaldian ezarritako merezimendu bakoitzarenak, epaimahaiko kideek emandako puntuazioen batuketara eginez emango dira. Puntuazio guztiak batu eta bertaratutakoen artean zatituz, ematen duen zatidura, izango da behin betiko kalifikazioa.

Oposizioaldian (ariketa bakoitzeko puntuazioen batura) eta, hala badagokio, lehiaketakoan (merezimendu bakoitzaren puntuazioen batura) lortutako puntuazioen batura izango da sailkapenaren hurrenkera.

Berdinketa gertatuz gero, ordena ezartzeko, lehenik eta behin, oposizioaldian puntuaziorik altuena lortu duen izangaia hartuko da kontuan; bigarrenik, Toki Administrazioan lanean denbora gehien eman duena; hirugarrenik, bigarren ariketan puntuaziorik altuena lortu duen izangaia; laugarrenik, zozketa egingo da berdinduta dauden pertsonen artean, epaimahaiak ezartzen duen moduan.

Ariketa bakoitzeko puntuazioak jendaurrean jarriko dira, iragarki oholean eta Lekeitioko Udalaren web orrian argitaratuz.

**Zortzigarrena. — Hautaketa prozesuko emaitzak**

Izangaien kalifikazioa bukatutakoan, epaimahaiak izangaien sailkapena edo ordena, eta lehen sailkatutako izendapen-proposamena igorriko dio Lekeitioko Udaleko alkateari. Gainera, ariketa guztiak puntuazioaren arabera gainditu dituzten zerrendako pertsona hauek izendatzeko proposamen osagarria egingo du, izendatuek praktikaldia amaitu edo gainditzeko ez dutenean edo edozein arrazoi dela medio jabetza hartzen ez dutenean erabiltzeko.

**Bederatzigarrena. — Gorabeherak**

Epaimahaiak badu ahalmena sortzen diren zalantzak argitzeko eta hautaketa prozesua behar bezala burutzeko behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi ez den orotan.

Interesdunek deialdia, oinarriak eta oinarrietatik eta epaimahaiaren jardunetik erarortzen diren egintza administratibo guztiak inpugnatu ahal izango dituzte Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

Oinarri hauetan aurreikusi ez den orotan, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua; Estatuko Administrazioaren zerbitzuko Langileak Sartzeko Erregelamendu Orokorra; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea; apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretua; eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legea eta aplikagarri izan litezkeen gainerako xedapenak izango dira aginduzko.



Otsailaren 10eko 352/86 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren babesean, epaimahaiak ahalmena izango du deialdi honetako probak egiteko behar diren denbora eta baliabide egokitzapenak egiteko, aniztasun funtzionalen bat galdu eta eskabidean hala adierazi duten izangaiantzat, betiere, probaren edukia indargabetzen ez badu, eta probaren gaitasun-maila murrizten edo gutxitzen ez badu.

#### **Hamargarrena. — Dokumentazioa aurkeztea**

Hautaketa-prozesuan lanpostua lortu duten izangaien izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hori argitaratzeaz gain, proposa-tutako izangaiak deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiri hauek aurkeztu beharko ditu Lekeitioko Udaleko Idazkaritzan, behin betiko kalifikazioen zerrenda argitaratu eta 20 egun naturaleko epean, baldin eta aurretik aurkeztu ez baditu:

- NANaren fotokopia konpultsatua.
- Dagokion eranskinean eskatutako titulazioaren fotokopia konpultsatua.
- Euskarazko 3. hizkuntza-eskakizunaren edo baliokidearen fotokopia konpultsatua.
- Zinpeko aitorpena, egiaztatzen duena ez dela diziplinazko espediente bidez banandu ezein administrazio publikotako zerbitzutik, eta ez dagoela Herri Administrazioaren zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/84 Legean eta Estatuko Administrazioaren zerbitzuko langileei aplikatu beharreko bateraezintasunei buruzko apirilaren 30eko 598/85 Errege Dekretuan aurreikusitako ezgaitasun- edo bateraezintasun-kausaren batean.
- Sexu-delitugileen erregistro nagusiaren ziurtagiri negatiboa.
- Lekeitioko Udalak izendaturiko zerbitzu medikoak emandako ziurtagiria, eginkizunak behar bezala betetzea galarazten dion gaixotasun edo ezgaitasun fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena.

Epe horretan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, izangaiak eskatutako baldintzei buruzko dokumentazioa aurkezten ez badu, edo dokumentazio hori aztertutakoan baldintza horietakoren bat betetzen ez duela ikusten bada, ezin izango da izendatu, eta bere jarduera guztiak bertan behera geratuko dira, eskaeran gezurra esateagatik izan dezakeen erantzukizunaren kalterik gabe. Kasu horretan, organo eskudunak beste proposamen bat egingo du, izendapen proposamen osagarrian jasotakoan jarraituz, hautaketa prozesua gainditu eta azken puntuazioaren hurrenkeran hurrengo den izangaiaren alde.

#### **Hamaikagarrena. — Praktikaldia eta izendapena**

Ebaluazio prozedurak jarraipena izango du praktikaldian zehar, eta bakarrik etengo da aldi honetan zehar modu puntualean edo metatuan hamabost (15) egun natural baino gehiagoan falta denean eta ez-egotea justifikatuta dagoenean. Kasu horretan, ukitutako pertsonak ezarritako aldi osoa bete beharko du.

Izendatzen den izangaia praktiketako funtzionario izango da, eta udal langileen ordainsariak arautzen dituen Akordioan adierazitako ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du. Funtzionarioei aplikatu beharreko Gizarte Segurantzako erregimenean alta emango zaie.

Egoera horrek izendapenaren ebazpenean adierazten den egunetik jabetzan hartu arte edo praktikaldi horretan deskalifikatzen den arte iraungo du.

Izangaiari gai edo ez gai kalifikazioa emango zaio eta hautaketa prozesuko fase hau gainditzeko gai izan beharko da.

Praktikaldi horretan, deialdiko lanpostuari dagozkion eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko behar diren trebetasunak eta abileziak ebaluatuko dira, bai ezagutza teknikoak aplikatzeari dagokionez, bai lanerako gaitasunari, ardurari eta ekimenari da-



gokienez, bai lantaldeetan integratzeari eta barne eta kanpo harremanetara egokitzeari dagokionez.

Horretarako, tutore bat izendatuko da, lanen jarraipena egin dezan.

Praktikaldia bukatuta, tutoreak txosten bat egingo du praktikaldia nola egin den eta, bere ustez, behar den gaitasun maila lortu duen azaltzeko. Txosten hori hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari igorriko zaio, eta epaimahaiak, aztertu ondoren, praktikaldia gainditu duen ala ez erabakiko du, eta Alkatetzari aipatu aldia gainditu duen izangaia izendatzeko, dagokion izendapen-proposamena igorriko dio.

Praktikaldiko edozein unetan, izangaiaren izendapena bertan behera utzi ahal izango da, baldin eta izangaia ez baditu gaitasun edo aprobetxamendu baldintza egokiak betezen, tutoreak hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileari zuzenduko dion proposamen bidez. Epaimahaiak, aipatu-takoa ikusita, karrerako funtzionario izen-datzea ala ez erabakiko du, eta ondorioz, horri buruzko proposamena egingo dio Alkatetzari.

Praktikaldiak urtebete iraungo du.

#### **Hamabigarrena. — Behin betiko izen-dapena**

Izangaien behin betiko kalifikazioa eta lehentasun hurrenkera oposizioaldian eta lehiaketaldian lortutako puntuazioen batura izango da, eta hautagai hori izendatzeko ezinbestekoa izango da praktikaldiko gaitasun-adierazpena.

Izendapena interesatuari jakinaraziko zaio eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaltzeko iragarki oholean eta [www.lekeitio.eus](http://www.lekeitio.eus) web orrian argitaratuko da.

#### **Hamahirugarrena. — Lanpostuaz jabetzea**

Udal-organo eskudunak proposa-mena onartu ondoren, izendatutako izangaia karguaz jabetu beharko du eta urriaren 30eko 5/2015 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1.c) artikuluan eskatzen dena bete beharko du, hogeita hamar (30) eguneko epean, izendapena jakinarazten zaionetik kontatzen hasita.

Epe horretan lanpostuaz jabetzen ez bada, bidezko arrazoirik gabe, kargua utzita-kotzat joko da, eta eskubide guztiak galduko ditu. Kasu horretan, Lekeitioko Udaleko alkateak oposizioko ariketak gainditu eta oposizioaldiko eta lehiaketaldiko puntuazioak batuta baloraziorik onena lortzen duen pertsona izendatzeko proposamena egingo du.

#### **Hamalagarrena. — Aurkabideak**

Oinarri hauen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio oinarri hauek onartu dituen organoari hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean aurka egin ahal izango zaio administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, biak ere oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik kontatzen hasita, Administrazio Prozedurari buruzko uztailaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. Artikuluan ageindutakoaren arabera.

**I. ERANSKINA****1. Deialdiko plaza**

Gizarte langile plaza bat (1), Lekeitioko Udaleko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoetan ari-tzeko karrerako funtzionario, lanaldi osoan, A2 azpitaldeari dagokion kategoriarekin eta 20. mailako destino-osagarriarekin.

*Eginkizunak*

Lanpostua Lekeitioko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen burutza da. Burutzari, besteak beste, erantzukizun hauek dagozkie:

- Lekeitioko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen antolaketaren, jarraipenaren eta gainbegiratzearen ardura hartzea.
- Lekeitioko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko udal-langileen kudeaketaz arduratzea.
- Lea-Artibaiko Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan ari-tzeaz eta koordinatzeaz arduratzea.
- Lekeitioko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuen ordezkari izatea.

Honako hauek dagozkie:

- Udalaren gizarte-zerbitzuak kudeatzea eta hauen ordezkartza espazio publiko eta pribatuetan.
- Herritarrak informatu, baloratu eta orientatzea, haien gizarte-beharren aurrean di-tuzten eskubideak eta baliabideak ezagut ditzaten.
- Banakako eta / edo familiako esku-hartze programak kudeatzea, krisi edo egoera kronikoetan dauden pertsonen eta / edo familiei laguntzeko eta haien gizarteratzea bultzatzeko, eskaerak jasoz eta diagnostikoa eginez. Lan plana, hitzarmenak, eus-karri pertsonalen koordinazioa eta beste eragile batzuekiko koordinazioa.
- Prestazioak kudeatzea, pertsonen beren beharren arabera eskura ditzaten baliabideak. Horretarako, gizarte-larrialdietarako laguntzak eta oinarrizko errentakoak, presako laguntza, gizarteratzea, pentsioak eta laguntza juridikoa tramitatuko dira.
- Adineko pertsonen, pertsona ezinduei eta haien familiei Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua antolatzeaz arduratzea, eskaerak jasoz, egoerak aztertuz eta baloratuz, eta dagokion tramitazioa egitea erakunde eskudunekin.
- Etxez Etxeko Laguntzaileentzako Laguntzen Lan Plana egitea eta ekintza-plana-ren jarraipena egitea, talde horren lana gainbegiratzuz, egutegia antolatuz eta etxe-ko laguntzaileen koordinazioa eta prestakuntza praktikoa eginez.
- Telelaguntza eta laguntza teknikoak izapidetzea, etxean ezgaitasuna duten perso-nen laguntzeko.
- Egoitzetako pertsonen diru-sarrerak kudeatzen laguntzea, behar diren izapideak egiten eta diru-laguntzak lortzen lagunduz.
- Larrialdiko egoerei erantzutea (emakumea, gaixo mentalak, zaharrak), pertsona behartsuak eta familia zainduz. Koordinazioa, bizilagunekin, udaltzain-goarekin, beharrezkoa bada. Ezarri sare pribatu edo publikoekiko koordinazioa, norberare-nak edo beste erakunde batzuenak, eta gero jarraipena egitea.
- Udaleko teknikariek eta / edo politikariek barne-bileretan parte hartzea, beha-rrak eta jarduera-proiektuak aztertzeko.
- Hainbat memoria eta txosten egitea.
- Goragoko batek agintzen dion guztia egitea, bere eskumenen barruan.
- Etxeko laguntzaileen gaineko erantzukizuna.

**2. Epaimahaia**

- *Burua*: Lekeitioko Udaleko edo Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario bat, deialdiko lanpostuaren titulazio maila berekoa edo goragoa.



— *Kideak*: Beste udal batzuetako edo Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako hiru funtzionario eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkartzan karrerako funtzionario bat, deialdiko lanpostuaren titulazio berekoa edo goragokoa.

— *Idazkaria*: Bizkaiko Foru Aldundiak izendatutako karrerako funtzionarioa.

Kide bakoitzak ordezeko bat izango du.

Deialdian eskatzen den hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probetan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkari bat izango da epaimahaian.

Epaimahaiak, egin beharreko lanean laguntzeko, hautapen prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako aholkulariak hartu ahal izango ditu. Aholkulariek epaimahaiari laguntza emango die bakoitzaren espezialitate teknikoetan bakarrik.

### 3. Hautatzeko prozedura

Izangaiak oposizio-lehiaketa bidez hautatuko dira.

#### *Oposaketaldia*

Zenbait ariketa egin beharko dira:

Lehenengo ariketa: Gai orokorrak (nahitaezkoa eta baztertzaila)

Idatzizko proba bat egingo da, II. eranskinetako gai bat edo gehiago jorratuz. Proba honetan 0tik 10era bitarteko puntuazioa emango da.

Bigarren ariketa: Gai espezifikoa (nahitaezkoa eta baztertzaila)

Proba hau bi zatitan banatuko da: bata teorikoa eta bestea praktikoa.

1. *Gai espezifikoei buruzko teorikoa*: idatzizko proba bat egin beharko dute, gizarte zerbitzuen gai zerrenda espezifikoki buruzkoa. Epaimahaiak probak egitean erabakiko du II. eranskinetako gai batzuk garatu edo gai horiei buruzko galderei erantzun. Proba honek 0tik 15 puntu bitarte izango ditu.
2. *Gai zehatzei buruzko praktikoa*: idatzizko proba bat egin beharko dute, gizarte zerbitzuen gai zerrenda espezifikoarekin zerikusia duten kasu praktikoko bati edo batzuei buruzkoa. Epaimahaiak II. eranskinetako gaiei buruz proposatutako egoera praktikoa idatziz garatu beharko dute. Proba honek 0tik 20 puntu bitarte izango ditu.

Hirugarren ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila)

Proba horrek bi zati izango ditu:

1. *Nortasun-probak*: idatzizko eta/edo ahozko proba egin beharko dute. Proba honi 0tik 5 puntu bitarte emango zaizkio, eta gutxienez ere 2,5 puntu emanen dira.
2. *Elkarrizketa epaimahaiarekin*: Epaimahaiak elkarrizketa egingo die izan-gaiei gizarte-lanaren lanbideari, eginkizunei, trebetasunen erakustaldiari eta abarri buruz, eta epaimahaiak egindako galderei emandako erantzunak baloratuko ditu. Elkarrizketa honi 0tik 5 puntu bitarte emango zaizkio, eta gutxienez 2,5 puntu lortu beharko dira. Elkarrizketatzaila proba teknikoetan aditua izango da eta giza baliabideen eta administrazioaren ezagupenak izango ditu.

Epaimahaiak erabakiko du bi proba horiek egun berean egingo diren, bata bestearen ondoren ala egun desberdinetan, lehen probaren emaitzak argitaratu aurretik edo ondoren (nortasun probak).

Laugarren ariketa: Euskara-proba (derrigorrezkoa eta baztertzaila)

Euskarazko 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea dutela egiaztatu beharko dute, edo, bestela, hautaketa-prozesuan horretarako ezartzen den probara aurkeztu. Gai edo ez gai kalifikatuko da. Hizkuntza-eskakizuna ez frogatzeak hautaketa prozesutik kanpo utziko ditu izangaiak.



Hala ere, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute proba hori egingo, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administra-zioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

#### *Lehiaketaldia*

Izangaiek, eskabideak aurkezteko epean, alegatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira.

Oposizioaldiko ariketabaztertzailleak amaitu ondoren, hauek gainditu dituzten izangaiek, eskabidearekin batera alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak aurkeztuko dituzte, epaimahaiak lehiaketa-fasean kontuan hartuko dituenak, proba horiek gainditu dituzten izangaien zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 10 egun balioduneko epean. Adierazitako epean, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, gainditutako izangaiek ez badeute alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiririk aurkezten, epaimahai kalifikatzaileak ez ditu kontuan hartuko, hasierako eskabidea faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunaren kalterik gabe.

Honako merezimendu hauek baloratuko dira:

- A. Gizarte esku hartzearekin zerikusia duten gradu edo diplomatura izatea (Gizarte-hezkuntza, Psikologia, Soziologia...): 2 puntu.
- B. Hizkuntzak: gehienez puntu 1.
  - a) Ingelesa: Maila ertaineko B-1 ziurtagiria: 0,5 puntu.
  - b) Frantsesa: Maila ertaineko B-1 ziurtagiria: 0,5 puntu.
- C. Esperientzia: 12 puntu gehienez.
  - a) Administrazio Publikoan gizarte-langile gisa emandako zerbitzuengatik: 0,5 puntu hiruhileko bakoitzeko, eta 8 puntu gehienez.
  - b) Irabazi asmoa duten edo ez duten gizarte-ekimeneko erakundeetan, elkar-teetan eta beste batzuetan gizarte-langile gisa emandako zerbitzuengatik: 0,25 puntu hiruhileko bakoitzeko, eta gehienez ere 4 puntu.

Administrazio Publikoan egindako zerbitzuen kasuan, alde aurreko zerbitzuak egiaztatzen dituen ziurtagiria eskatuko da —eskaerarekin batera doan ereduaren arabera—.

Irabazi asmoa duten edo ez duten gizarte-ekimeneko erakundeetan, elkar-teetan eta beste batzuetan egindako zerbitzuen kasuan, egindako lanak zehazten dituen enpresaren ziurtagiria eskatuko da.

Bai kasu batean zein bestean, Gizarte Segurantzaren lan-bizitzari buruzko ziurtagiria aurkeztu beharko da.

#### D. Prestakuntza:

Lanpostuarekin zerikusia duten eta erakunde ofizialek ematen dituzten ikastaroak, guztira 5 puntu gehienez, honela banatuak:

- a) 10 ordutik 20 ordura bitarteko ikastaroak: 0,5 puntu ikastaro bakoitzeko.
- b) 21 ordutik 40 ordura bitarteko ikastaroak: 0,75 puntu ikastaroko.
- c) 41 eta 60 ordu bitarteko ikastaroak: puntu bat ikastaro bakoitzeko.
- d) 61etik 80 ordura bitarteko iraupena duten ikastaroak: 2 puntu ikastaroko.
- e) 80 ordutik gorako iraupena duten ikastaroak: 4 puntu ikastaroko.

Lehiaketaldian lortutako puntuazioen batura ez da 20 puntutik gorakoa izango.

**GAI ZERRENDA****I. ZATIA****ZATI OROKORRA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.
2. gaia: Euskadiko Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Euskal Herriaren eskumenak: eskusiboak, legeriaren garapenekoak, eta betearazpenekoak.
3. gaia: Udalerria. Kontzeptua. Antolaketa eta eskumenak (2. kapitulua) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen II. tituluko II. eta III. artikulua).
4. gaia: 3/1995 Foru Araua, martxoaren 30ekoa, Bizkaiko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituena.
5. gaia: Toki araubidea: Konstituzioaren printzipioak eta araubide juridikoa. Toki entitate motak.
6. gaia: Probintziaren antolaketa eta eskumenak. Foru Aldundiak Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legea.
7. gaia: Prozedurako interesdunak. Jarduteko gaitasuna eta interesatuaren kontzeptua. Interesduna eta haren ordezkaria.
8. gaia: Administrazio egintza. Kontzeptua. Administrazio egintza motak. Administrazio egintzaren elementuak
9. gaia: Administrazio prozedura orokorraren faseak. Administrazioaren isiltasuna.
10. gaia: Administrazio egintzen eraginkortasuna. Administrazio egintzaren baliogabetasuna: erabateko deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Ofizios berrikustea.
11. gaia: Administrazio errekursoak. Printzipio orokorrak. Motak. Araubide juridikoa.
12. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa: Funtzionarioen eskubide eta betebeharrak eta horien ordainsari araubidea.
13. gaia: Euskara Estatutuan. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea. Hizkuntza eskakizunen azterketa berezia, araubide juridikoa-ren eta aplikazioaren gainekoa.
14. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako: Atariko titulua, I. titulua: eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa; II. titulua: Genero-ikuspegia euskal botere eta administrazio publikoen jardueran txertatzeko neurriak; III. tituluko VII. kapitulua: Berdintasuna sustatzeko neurriak esku-hartzearen arlo desberdinetan - Emakumeen aurkako indarkeria.
15. gaia: Lekeitioko Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Plana.
16. gaia: Datuen babesa: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

**II. ZATIA****ZATI BEREZIA**

17. gaia: 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. (2008ko 246. EHAA). Xedapen orokorrak.
18. gaia: Zerbitzuak eta esku hartzeko oinarrizko prozedura. Prestazioen eta zerbitzuen katalogoa eta zorroa.
19. gaia: 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Gizarte zerbitzuen euskal sistemaren antolaketa.



20. gaia: Gizarte diagnostikorako eta bazterketaren baloraziorako tresna komunak. 353/2013 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Diagnostiko Sozialeko Tresnari buruzkoak (EHAA, 353. zenbakia) 121, 2013ko ekainaren 26koa) eta 385/2013, Gizarte Bazterkeria Baloratzeko Tresna onartzen duena (EHAA, 2013ko abuztuaren 7ko 149).

21. gaia: 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. (EHAA, 206. zenbakia, 2015eko urriaren 29koa). Xedapen orokorrak: zerbitzu eta prestazio ekonomikoak eskuratzeko betebeharrak eta irizpideak. Prozedura-xedapenak. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak arautzea. Prestazio teknikoen definizioa.

22. gaia: Gizarte lanaren kontzeptua. Gizarte lanaren xedea. Gizarte lanean esku hartzeko ereduak. Gizarte lanaren metodologia.

23. gaia: Ikerketa gizarte lanean. Gizarte laneko teknikak eta tresnak.

24. gaia: Ebaluazioa gizarte lanean. Gizarte-adierazleak. Gizarte lana gainbegiratzeari: kontzeptua, esku-hartzeak gainbegiratzeari, ikuskapen instituzionala, gainbegiratzeari gizarte lanaren praktika profesionalean duen garrantzia.

25. gaia: Gizarte Laneko profesionala Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako oinarriko laguntzan.

26. gaia: Banakako gizarte lana. Banakako arreta: kontzeptua, helburuak, teknikak, tresnak eta aplikazio esparruak.

27. gaia: Familiaren gizarte lana. Familia, familian gizarte lanean esku hartzeko teknikak.

28. gaia: Gizarte lana komunitatean. Beharrak antzematea. Metodologia, teknikak eta tresnak, parte hartzeko moduak eta mailak.

29. gaia: Elkarriketa gizarte lanean. Elkarriketak lan-tresna gisa duen garrantzia, testuinguru indibidualago batean.

30. gaia: 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen laguntzeari buruzkoa (1) (EAO, 299. zenbakia, 2006ko abenduaren 15ekoa). Eskubideen xedea, printzipioak eta titularrak, sistemaren konfigurazioa, zerbitzuen prestazio eta katalogoak, mendekotasunaren balorazioa eta eskubidearen onarpena.

31. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren urriaren 11ko 153/2016 Foru Dekretua, mendekotasun-egoeran baloratzeko eta orientatzeko prozedura arautzen duena (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2016ko urriaren 14ko 196).

32. gaia: Zerbitzuari lotutako prestazioa. Laguntzaile pertsonalaren prestazioa. Familia barruko zaintzetarako prestazioa. Bizkaiko Lurralde Historikoan arautzea.

33. gaia: Lea-Artibaiko Mankomunitatearen etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen erregelamendua eta ordenantza fiskala. (52. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2020ko martxoaren 16koa).

34. gaia: Gizarte lana mendekotasuna duten adineko pertsonen laguntzeko: planteamendu orokorrak. Helburuak. Jarduerak, metodologia eta teknikak.

35. gaia: Udalaren eta Foru Aldundiaren eskumeneko zerbitzu eta prestazioak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren arabera.

36. gaia: Lea Artibaiko Mankomunitateko adineko pertsonentzako eguneko arreta zerbitzuen araudia. (173. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2019ko irailaren 11koa).

37. gaia: Gizarte Lanaren alderdi etiko eta legalak mendekotasuna duten adinekoei laguntzeko.

38. gaia: 385/2013 Dekretua (EHAA, 149. zenbakia, 2013ko abuztuaren 7koa). Baloratzeko, gizarteratzeko, gizarte-bazterketa jasateko eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuaren ondoriozko egoerak. Kontzeptuak. Gizarte bazterketako intentsitateak. Instrumentua kalkulatzeko sistema. Adierazleen zerrenda: eremuak eta neurriak.



39. gaia: Gizarte bazterketa baloratzeko prozedura Bizkaiko Foru Aldundian. Uztailaren 1eko 85/2004 Foru Dekretua (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 125. zenbakia, 2014ko uztailaren 2koa): Xedapen orokorrak, gizarte-bazterketako egoera aitortzeko prozedura.

40. gaia: 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoa (EHAA, 206. zenbakia, 2015eko urriaren 29koa). Udalaren eskumeneko eta foru eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak, gizarteratzeko.

41. gaia: Oinarrizko arretan gizarteratzeko programak, baliabideak eta zerbitzuak, zorroaren dekretuan oinarrituta.

42. gaia: Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria. Abenduaren 23ko 18/2008 Legea (250/2008 EHAA). Kontzeptua eta esparru juridikoa. Titularrak: bizikidetzako unitate ekonomiko independentearen betebeharrak eta kontzeptua.

43. gaia: Gizarteratzeko laguntza berezia: xedapen orokorrak. Titularrak: betebeharrak eta betebeharrak. Laguntzaren onarpena. Berrikustea, aldatzea, etetea eta iraungitzea. Gizarte Ongizateko Fondoko pentsioak.

44. gaia: Gizarte larrialdietarako laguntzak. Lea-Artibaiko Mankomunitatearen araudia.

45. gaia: Akonpainamendu soziala. Zertan datzan akonpainamendu lan soziala.

46. gaia: Gizarte langilearen gaitasun teknikoak eta jarrerak banakako, familiako, taldeko edo komunitateko akonpainamendu prozesuak egiteko.

47. gaia: Akonpainamendu sozialeko prozesu guztietako faktoreak.

48. gaia: Emakumeen aurkako indarkeria. Etxeko tratu txarrak. Kontzeptua. Kausak eta faktore eragileak. Ezaugarriak. Esku hartzeko foru baliabideak.

49. gaia: Tratu txarrak etxean: erakundeen esku-hartzea. Erakundeen arteko koordinazioa eta jarduteko protokoloak. Esku-hartze profesionala gizarte lanetik.

50. gaia: Emakumeen aurkako indarkeriaren esparru juridikoa. 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurkako babes integralerako neurriei buruzkoa (313. EAO, 2004ko abenduaren 29koa). 27/2003 Legea, Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena (2003ko abuztuaren 1eko 183. EAO).

51. gaia: Lea-Artibaiko Amankomunazgoko etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera pisua erabiltzeko arauak. 176, 2019ko irailaren 16koa)

52. gaia: Genero indarkeriaren biktima diren haurrak. Esparru juridikoa: kontzeptualizazioa. Ezaugarriak: genero indarkeriarekiko esposizio motak. Ondorioak haurrengan. Esku-hartze profesionala.

53. gaia: Gurasoen eta seme-alaben arteko indarkeria. Oinarriak. Kontzeptualizazioa. Gurasoen eta seme-alaben arteko indarkerian esku hartzeko foru programa.

54. gaia: Lekeitioko Udalaren jarduketa protokoloa, indarkeria matxistaren eta sexu erasoaren biktima diren emakumeei ematen zaien laguntza hobetzeko.

55. gaia: Haurrak babesteko sistemaren esparru juridikoa eta eskumenak EAEn. Administrazio ekintzaren printzipio gidariak babesaren arloan. Adingabearen interes gorena eta entzuna izateko eskubidea. Guraso-ahala, tutoretza eta zaintza.

56. gaia: Arrisku eta babes gabezia egoerak. Definizioa, larritasun mailak eta egin beharreko esku-hartzeak. Erakundeen arteko koordinazioa (udalerrria-lurraldea, beste administrazio eta erakunde batzuekin).

57. gaia: Esku hartzeko prozesu teknikoak:

- Harrera eta ikerketa.
- Hasierako ebaluazioa.
- Erabakiak hartzea.
- Banakako babes-plana.

58. gaia: Gurasoendako zailtasunak dituzten familiekin eta beren ingurunearekin lan egitea babesgabetasun egoera ahulean edo babesgabetasun arrisku arin/moderatuan.



59. gaia: EAEko adineko pertsonen tratu txar fisiko eta ekonomikoak eman eta antzemateko prozedura.

60. gaia: Balora musika tresna. Musika-tresnaren gida azkarra. 152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Nerabeentzako Laguntza eta Babeserako Udal eta Lurralde Zerbitzuetan (Balora) arrisku eta babesgabetasun egoeren larritasuna baloratzeko tresna eguneratzea onartzen duena. Testu hau erantsi zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Nerabeentzako Laguntza eta Babeserako Udal eta Lurralde Zerbitzuek nahitaez erabili beharko duten testuari. (EHAA, 125, 2017ko uztailaren 3koa).



**ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK  
DOCUMENTOS QUE ACOMPAÑAN ESTA SOLICITUD**

- NANren fotokopia / Fotocopia del DNI.
- Deialdian eskatutako tiuluaren fotokopia / Fotocopia del título exigido en la convocatoria.
- Eskatutako hizkuntza eskakizunaren tituluaren fotokopia edo handiagoa euskara meritotzat baliotatzeko (edo baliakide den tituluarena) / Fotocopia del título del perfil lingüístico exigido en la convocatoria o superior para ser valorado como mérito (o del título equivalente).
- Lehiaketa-fasean baloratzeko adierazten diren merezimenduen zerrenda (II eranskina) / Relación de méritos alegados a valorar en la fase de concurso (anexo II).

**4. Kontratazio zerrendetan sartzea / Ingreso en listas o bolsas de contratación**

Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ o NO:

	Lekeitioko Udalean indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak Administrazio Publikoaren beste Erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotzen aldera. Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales del Ayuntamiento de Lekeitio.
	Baimena ematen diot Lekeitioko Udalari, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, hizkuntza eskakizun eta gidabaimenen datuak kontsulta eta egiazta ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek eskuragarri dauden heinean. Ez baduzu baimen hau ematen dagozkion agiriak erantsi beharko dituzu. Autorizo al Ayuntamiento de Lekeitio a consultar y verificar por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, perfiles lingüísticos y permisos de conducción alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de no dar la autorización deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes.
	Baimena ematen diot Lekeitioko Udaletxeari nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan. Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que el Ayuntamiento de Lekeitio pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo.

## Lege-informazioa

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezietan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

## Información legal

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que la ha cumplimentado de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a su estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos

Jarri «X» laukitxoan / Marque con una «X» en el recuadro

ZINPEAN EDO HITZ EMANDAAITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO
---

Eskaera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa.

Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

Tokia / Lugar

Urtea / Año

Hilabetea / Mes

Eguna / Día

Sinadura / Firma

**LEKEITIOKO ALKATE-LEHENDAKARI JAUNA / SR. ALCALDE-PRESIDENTE DE LEKEITIO**

**DATUEN BABESA**

Honako hau jakinarazten dizut, datuak babesteko indarrean dagoen arau- dian aurreikusitako ondorioetarako:

Lekeitioko Udaleko Giza Baliabide Saila izango da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna (helbidea: Gamarra 1 48280 Lekeitio).

Zure datuen tratamenduak helburua da aurkeztuko zaren hautaketa-pro- zesua egoki prestatu eta garatzea, hautaketa-prozesuaren ondorioz sor litekeen lan-poltsa eratu eta kudeatzea, zuk alegatutako titulua eta, oro har, merezimenduak egiaztatzea eta aurkeztuko zaren plaza- k betetzeko behar diren betekizun guztiak dituzula egiaztatzea.

Eman dituzun datuak kontserbatuko dira hautaketa-prozesuak irauten duen bitartean, sor litekeen lan-poltsa indarrean dagoen bitartean (lan- pol- tsa horretan sartzen bazara) eta administrazio honekin ezar litekeen zerbi- tzu-harremanak irauten duen bitartean.

Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategi- naren (EPOETB) legezko manu bat (55. eta 56. artikulua) betetzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helbu- rua denean egiaztatzea ea betetzen dituzun funtzio publikoan sartze- ko be- tekizunak eta hautaketa-prozesuan hori betetzeko behar diren gainerako inguruabarrak. EPOETBn (10. art.) ezarritako botere publiko bat egikari- tzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, trata- mendu horren helburua aurkeztu zaren hautaketa-prozesuaren ondorioz egin litezkeen lan-poltsak kudeatzea denean.

Baimenik ematen ez baduzu aurretik adierazi diren arrazoieta oina- rriturik zure datuak tratatzeko, ezin izango duzu hautaketa-prozesuan parte hartu.

Posta elektronikoko helbideari eta telefono-zenbakiei buruzko zure da- tuak hautaketa-prozesuan komunikazioak egiteko tratatzeari dago- kionez, horretarako berariaz ematen duzun baimena izango da legezko oinarria. Hautaketa-prozesuan parte hartzea eta horren ondorio guztiak ez daude zure posta elektronikoko helbidearen eta zure telefono-zenba- kien datuak tratatzeko baimena ematearen mende.

Zure datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) badaude sor litezkeen lan-poltsetan, helburu bakar honekin laga ahal izango zaizkie beste administrazio publi- ko batzuei, betiere jasota badago berariaz baimena eman duzula horreta- rako: lan-eskaintzak egin ahal izatea legez ezarritako terminoetan.

Zeure datuetara irispide izateko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egite- ko, mugatzeko eta transferitzeko dituzun eskubideak tratamenduaren ardu- radunaren aurrean egikaritu ahal izango dituzu. Eskubidea izango duzu, era berean, eskatu zaizun tratamendurako edo tratamenduetara- ko eman duzun baimena kentzeko, baina horrek ez dio legitimatzerik kenduko bai- mena kendu aurretik eginiko tratamenduari. Era berean, ezin izan badituzu zeure eskubideak egikaritu, erreklamazioa aurkeztu ahal ango duzu da- tuen babesaren gaian eskuduna den kontrol-agin- taritzaren aurrean.

**PROTECCIÓN DE DATOS**

A los efectos previstos en la normativa vigente de protección de datos se le informa que:

El responsable del tratamiento de sus datos personales es el Departamen- to de Recursos Humanos del Ayuntamiento de Lekeitio, situada en Gamarra 1. 48280-Lekeitio

Sus datos serán tratados con el fin de preparar y desarrollar correcta- mente el proceso selectivo al que usted aspira y la constitución y gestión de la bolsa de trabajo que pudiera crearse a resultados del mismo, de verificar los títulos y méritos en general alegados por usted y de acreditar que cuenta con todos los requisitos necesarios para el acceso a las plazas a las que concurre.

Los datos proporcionados se conservarán mientras dure el proceso sele- ctivo, mientras esté vigente la bolsa de trabajo que pudiera crearse, en caso de acceder a ella, y mientras dure la relación de servicio que pudiera llegar a establecerse con esta Administración

La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de verificar los requi- sitos de acceso a la función pública y las circunstancias que determinen su desempeño en el proceso selectivo es el cumplimiento de un manda- to legal contenido en el TREBEP (artículos 55 y 56). La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de gestionar las posibles bolsas de tra- bajo resultantes del proceso selectivo al que usted aspira es el ejercicio de un poder público recogido en el TREBEP (artículo 10).

De no prestar el consentimiento para el tratamiento de sus datos basado en los antedichos motivos, no será posible la participación en el corres- pondiente proceso selectivo.

La base legal para el tratamiento de sus datos relativos a dirección de correo electrónico y números de teléfono para comunicaciones durante el proceso selectivo es su consentimiento expreso a tal efecto. La partici- pación en el proceso selectivo y todas sus consecuencias no están supedita- das a la prestación de su consentimiento para el tratamiento de los datos relativos a su correo electrónico y sus números de teléfono.

Sus datos personales contenidos en las posibles bolsas de trabajo (nom- bre y apellidos, DNI, domicilio, teléfono de contacto y nivel de formación) serán cedidos, siempre que conste su expreso consentimiento, a otras Administraciones Públicas con la exclusiva finalidad de que les puedan ser realizadas ofertas de empleo en los términos legalmente previstos.

Usted podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y a la portabilidad de sus datos. Asimismo, usted tiene derecho a retirar el con- sentimiento prestado para el o los tratamientos que así lo hayan requerido, sin que ello obste a la legitimidad del tratamiento realizado previamente a su retirada. De igual modo, usted podrá presentar una reclamación ante la Autoridad de Control en materia de Protección de Datos competente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.